

IL AZALPEN PROBA • <i>Leonardoren hegoak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Haren nobioa edo mutil-laguna bihurtu nintzen, bederatzi urteko mutiko bat eta hamar urteko neskatxa bat nobioak izan daitezkeen neurrian. Gero, labur esanda, apurka-apurka bizitza gertatu zen, eta harremana galdu genuen.

Eta orain ikusi egin nuen.

Elastiko zuri batez jantzitako neska bat zegoen, fruta-kutxa batzuk hartzen eta furgoneta zahar batera eramaten. Haren mugitzeko modua, kopetako ile-xerloa jasotzekoa... eta haren irribarrea. Baziren hiru urte gutxienez Amalurren berririk ez neukala, baina ziur nengoen hura zela. Nire Beatriz.

Zorabioak hartu ninduen.

–Aizu, barkatu. Amalur al zara? –galdetu nion, euskaraz.

Hark ez zuen erantzun. Niri begira geratu zen, ni kokatu nahian bezala. Bat-batean, aurpegi osoa argitu egin zitzaion.

–Haritz...? Haritz! Aspaldiko!

Aspaldiko, bai.

Ez nion erantzun. Begira bakarrik geratu nintzaion.

Eta miresten. Egundoko emakume-itxura zeukan.

Eta nik, aldiz, garai bateko mutiko lotsatiarena baino ez.

Kaka zaharra.

IL AZALPEN PROBA • <i>Leonardoren hegoak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

–Zutaz gogoratzen naiz –esan nion–. Zerbait gertatzen al da?

–Argi ibil zaitez. Oso argi. Nire bila etorri dira oraintsu.

–Juliet, lasai zaitez apur bat, oso nekez ulertzen dizut eta. Nor joan da zure bila?

–Begira, orain ez dago azaltzeko astirik. Gauza bat egin behar duzu, mesedez. Baina segituan.

–Ei, urduri jartzen ari naiz.

–Leizea ezagutzen al duzu, zure osabaren gela?

–Bai noski.

–Joan hara eta eskuizkribu batzuk bilatu.

–Mahai gainean egongo dira, ziur asko. Hartu guztiak.

Zarata entzun nuen eskaileran.

–Itxaron, norbait dator. Ea osaba den.

–Egon hortxe! Kontuz. Kontuz! Zure osaba ez bada, ziztu bizian alde egin ezazu hortik.

–Baina zer... ?

–Egin kasu, faborez –erregutu zuen Julietek.

–Ikustera joango naiz –esan nion, ahotseko bolumena jaitsiz–. Egon pixka bat.

Pauso arin bezain isilean joan nintzen ateraino. Xuxurla bat entzun nuen. Etxeko sarrailan ari ziren. Ateko behatxulotik begiratu nuen, bihotza ukabil batean sartuta neukala.